

6.- GIZARTE ZIENTZIAK

SARRERA

Gizarte Zientzien arlorako curriculum espezifikokoaren proposamenaren **helburua** ikaskuntza arloetako xedeak lortzen eta konpetentzia orokorrak garatzen laguntzearekin batera Euskal Herrian bizitzeko beharrezkoak diren konpetentzia espezifikoa eta edukiak definitzea da.

Zehatzago esanda, helburuetako bat ikasleei euren burua hobeto ulertzen laguntzea da: pertsona bakarrak dira, baina beste batzuekin batera bizi dira gizartean, eta hainbat taldetan antolatzen dira, helburuen edo mailen arabera (familia, eskola, bizilagunak, udalerrria, nazioa, etab.). Helburua talde horiek hobeto ezagutzen laguntzea da, eta talde horietan modu aktiboan parte hartzen laguntzea. Talde horiek elkarreragileak dira, urte luzeetan berrantolatu dira eta hainbat jatorritako (politikoak, ekonomikoak, sozialak, etnikoak, kulturalak, etab.) bizikidetzak gatazkak eta tentsioak izan dituzte eta izaten ari dira. Beharrezkoa da gatazka horiei bake eta demokrazia prozesuen bidez aurre egitea guzti hau euskararen lurraldean kokaturik.

Gizarte Zientzien beste helburua, euskal gizartearen bilakaera historikoa eta bere gizarte-osagaiak aztertzea da, bere osotasunean hartuta aztertzea, egunez egun sortuz doazen gizarteko elkarrekintzen sarean, baina euskal errealitatea bere baitatik – barrutik- begiratuta, ikuspegi lokala abiapuntutzat hartuta.

Barandiarani jarraiki, zibilizazio ezaugarriak edo kultur elementuak honako hauek direla esan dezakegu: giza talde batek bizitzaren oinarritzko arazoei ematen dizkien erantzunak edo irtenbideak. Hortik sortzen da gure herriaren berezitasunak ezagutzeko interesa, eta horri zor diogu, hein handi batean, gure heziketa. Gure euskal herriak oso aurrekari urrunak ditu, bere prozesu historikoaren fase askotan beste talde batzuen eragin sakonak izan ditu, eta bizi forma originalak garatu ditu, denak honako zazpi galderen bueltan kiribiltzen ditugularik:

1.- Non bizi gara eta nola antolatzen dugu espazioa?

Ezin dugu pentsatu isolaturik gaudenik munduan. Gure ingurunea planetaren funtzionamendu globalaren barruan dago, eta ezagutu beharreko zenbait lege eta printzipio orokorren mende geratzen da, adibidez eguratsaren zirkulazio orokorra ezagutu behar da, Euskal Herriko klima zuzen interpretatzeko.

Gure paisaia, gure kultura bezalaxe, milaka urtetan zehar moldatzen joan da gaur egungoa izatera iristeraino; hori ulertu nahi badugu, modelatze horretan eragin duten arau orokorrak aztertu eta ezagutu behar dira, eta beste erregela txiki batzuekin, tokian tokikoekin, osatu, hauek izan baitira ukitu berezi bat eman diotenak «gure» paisaia bihurtzeko.

Paisaia honek zenbait arazo ere planteatzen ditu, gizakiak izadiarekin duen elkarrekintzatik sortzen direnak, oro har. Gure ingurunea sakon ezagutzeak eta funtzionamendu-mekanismoak ulertzeak bakarrik ahalbidetuko digu sortutako arazoak konpontzeko neurriak planifikatu edo proposatzea, gizakiaren eta bere ingurunearen arteko oreka orokorra bilatuz.

2.- Zein eta zenbat gara?

Euskal Herriaren bilakaera sozio-politikoak ulertu nahi badugu ezinbestekoa dugu denboraren joan etorrian Euskal Herrian egon diren biztanleria aldaketak

ezagutzea, demografiaren dinamikak kulturen, hizkuntzan, ekonomian duen eraginaz jabetzeko eta zuntz horiekin eraiki beharko dugulako etorkizuneko Euskal Herria.

Demografia zein migrazio mugimenduei dagokionez, bereziki, azken 125 urteak hartu ditugu mugari bertan kokatzen baitira egungo euskal gizartea baldintzatu eta eraldatu dituen inflexio punturik garrantzitsuenak. XIX. mendean Euskal Herriak ia 900.000 biztanle bazituen XX. mende osoan biztanleriaren kopurua hirukoiztu egin zen. Garai horretan gertatu da *iraultza demografikoa* deitu izan dena: jaiotza eta heriotza asko dituen eredu batetik, jaiotza ugari baina heriotza gutxi dituen beste eredu batera igarotzea alegia, horrek dakarren hazkunde demografikoarekin. Iraultza horren azken eskenatokia egungo ereduak dugu: bai jaiotzak eta baita heriotzak ere apalak diren ereduak hain zuzen.

Migrazio mugimenduei dagokionez, **emigratzeko** joera eduki duen lurraldea izan da Euskal Herria ia gaur egun arte. Izan ere, XIX. mende amaieran hasitako industrializazio prozesua gertatu baino lehen, nekazaritzan oinarritutako ekonomiak biztanle guztientzako adina ez zuenez ematen, mendez mende ehunka mila euskal herritarrek kanpora jo behar izan zuten. Hauek guztiak osatzen dute gaur egun euskal diaspora gisa ezagutzen duguna.

Inmigrazio fenomenoek ere errotik baldintzatu dute Euskal Herriko errealitate demografiko, ekonomiko, sozial, linguistiko, kultural eta politikoa. XIX. mende amaieran hasi zen etorkinen etorrera hori, industrializazioarekin batera Bilbo inguruan kokatzen. Dena den, mugimendu handiena azken urteetan ematen ari da, Europa osoan bezala, munduko lurralde txirotuetatik. Atzerritarren etorrera honek aldaketa sakonak eragingo ditu Euskal Herrian; bai etorkinen integrazio prozesuan, baita euskararen eta Euskal Herriaren etorkizunean ere. Gauzak horrela, bertan jaiotakoak eta kanpotik etorritakoak arteko errespetuan eta elkar ulertzean oinarritutako bizikidetzaren antolatzea funtsezko erronka izango dugu XXI. mendeko euskal herritarrok.

3.- Nondik gatoz?

Edukia bezain garrantzizkoa da historiaren funtzioa zein den argi agertzea. Zertarako egin behar da historia eta nolakoa? Soilik nazio baten nortasuna lantzeko eta zein nazio? Herritar komunitatearen kontzientzia lantzeko eta suspertzeko? Guztien ondare kulturala transmititzeko? Gaurko mundua ulertzeko iragana aztertuz? Galdera zerrenda luza eta osa dezake bakoitzak.

Euskal Herria ez da modu isolatuan bizi, garatu. Ez gara uharte herri bat. Historiaurrean zehar, eta noski geroagoko historian ere, askotariko eraginak iritsi zaizkigu hala iparraldetik nola hegoaldetik. Gure kulturaren sorrera, Europako beste hainbatetan bezala, beste herri, ekarpen, jendeen migrazio eta elementu kulturekiko harremanetan gertatu zen.

Hemen proposatzen den edukia behin behineko proposamena da. Azaltzen den historia Euskal Herrikoa da, baina Europako historia orokor baten barruan kokaturik, artikulazio eta marko politiko guztien gaineratik, euskaldunak gutxienez Europako herritarrak baitira.

Lana ez da erraza, ikusirik Euskal Herriko lurralde bakoitzak bere historia berezia duela, bere iragan bereziari, bere dinamika sozio-politiko bereziari loturik. Euskal Herria aurpegi anitzetakoak baita, lurralde bakoitzak egoera juridiko bereziak bizi izan ditu iraganean. Hala ere, desberdintasun guztien gaineratik, hori dira ezin ukatuzko eragile komunak, euskaldun guztien ondare komuna osatzen dutena.

4.- Zein dira mundu ikuskerak eta erlijioak?

Euskal kultura tradizionalak bere kosmobisio edo *munduaren ikuskera* izan du, kosmobisio askoren ekarpenez osatua, bere mitologia, sineste, usadio eta ohituretan zertzen dena, bere aztarna euskaran utzi duena, hau aldi berean errealitateaz egin dugun interpretazioaren inbentario eta egungo errealitatearen azterketa-tresna izanik. Era dinamikoan integratu ditugun eta integratzen ari garen ekarpen askoren barruan, bereziki garrantzitsuak dira europar herentziarekin partekatzen ditugunak: heleniar, erromatar eta kristau herentzia. Greziar munduak, beste ekarpen batzuen artean, arrazionaltasunaren ondarea utzi digu, eta horregatik sartu dugu azterketa kritikoa gure eskema kognitiboaren barruan ezinbesteko elementutzat. Erromatar munduak, besteak beste, legearen eta egitura juridikoen ikuspegia utzi digu. Kristau-herentziak, eta zehatzago esanda gure kasuan herentzia katolikoak, Jainkoaren irudira egindako gizakiaren mundu-ikuskerak jakin baten eragina du gure eskema kognitiboetan. Noski, informazio-gizartearen eragina eta egungo mundializazioak badute zerikusirik XXI. mendeko euskaldunok kultur eskema eta eruedetan egindako (egin beharreko) birlantzearekin. Elementu horiek guztiak, neurri handiagoan edo txikiagoan, subjektu bakoitzaren eta bere zirkunstantzien arabera, banakoaren eta taldearen mundu-ikuskerak taxutuz doaz, banandu ezinezko eran dituztelarik neurri batean gizadi osoak partekaturiko elementuak, beste batzuk europarrek eta beste batzuk era espezifikoagoan euskaldunek partekatuak.

5.- Nola bizi gara elkarrekin eta nola konpontzen ditugu arazoak?

Euskal Herriaz aritzean, indarkeria edo bortxakeria aipatzen da behin eta berriz. Bere iturburu, ingurumari eta konponbideei buruzko eztabaidak kontrajarrita eta zatituta dauka euskal gizartea. Kanpoko eta barneko gatazka politikoak harreman eta arau asko lausotu ditu. Eta XXI. mendeko erronkarik garrantzitsuena justizian oinarritutako bakea eta normalizazioa lortzea izanen da. Horretarako eta ezinbestean gatazkei elkarrizketaren bidez irtenbidea bilatzeko gaitasuna indartu eta garatu beharrean gaude, denon artean partekatzen ditugun elementu komunen kudeaketan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzeko eta bizikidetzarako arauak elkarren artean eraikitzeko.

Euskal gizartearen bilakaerak azken berrehun urteotan, aipatu baldintzen eraginez, herri egoera berezia ekarri du, kulturalki anitza eta politikoki asmo kontrajarriak biltzen dituena: XXI. mendeko aberastasuna eta erronka aldi berean!

6.- Nolakoak dira eta nola funtzionatzen dute erakundeek?

Beren burua antolatzeko gaitasuna handia erakutsi du historikoki Euskal Herriak zein euskal gizarteak. Joera nabaria izan du auzolanean aritzeko eta arazoei zein beharrei erantzuteko gaitasun kolektiboa erakutsi du. Horrela historian zehar hainbat alditan argi erakutsi du bere legedi eta erakunde propioak sortu eta eraldatzeko gaitasuna. Gure legediek ibilbide luzea izan dute mendeetan zehar eta gure legedi ahalmenak gorabehera handiak izan ditu, hau murrizteko kanpoko eraso ugari jasan baititu.

Gaur egun ere egoera berezi xamarra da: Bi estatu eta hiru egitura administratibotan banatua, maila ezberdinetan, estatu horien menekotasunean bizi gara. Etorkizunean Europako Batasunak garrantzi berezia izan dezake estaturik gabeko nazioen indartze eta batasun prozesuan.

7.- Nola lortzen ditut beharrezkoak zaizkidan gauzak?

Herrialde baten iraganean, orainean eta geroan ekonomiak duen garrantzia jakin beharrek gaia da. Izan ere, edozein herriren ibilbide historikoan bizibideak nola erdietsi dituzten bertako biztanleek ezagutu behar da, arbasoek egiten zutenak gaur egungo jarduera ekonomikoa, hein handi batean behintzat, determinatzen baitu, eta orain egiten dugunak etorkizunekoak. Beraz, Euskal Herriko historia ekonomikoaren zertzeladak eman behar lirateke geure herria hobekiago ezagutzeko eta geroa proiektatzeko.

Hor ditugu burdin meategien aztarnak eta berauekin lotuta burdin olak, itsasaldeko ontziolak, arma fabrikak, etab. Gerora, duela gutxira arte iraun duten altzairutegiak sortu ziren, baina hauek ere eraldatuz joan dira, gaur egungo enpresa modernoak iraganeko haien ondorengo bezala kontsideratu behar direlarik. Ezin ahaztu, guztiaren erdian nekazaritza dugula, baserriaren inguruan sortzen diren harremanekin, ezta gaur egun hain esanguratsuak diren zerbitzuen nagusitasuna ere.

Honek guztiak markatu du gaurko euskaldunon bizitzeko era eta horretan oinarritu geure kultura, eta era berean hori guztia etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeko oinarriak ezartzen ari da.

8.- Zer ezaugarri nagusik definitzen du egungo gizartea eta nora goaz Euskal Herrian?

Euskal Herria abiatu da dagoeneko Informazioaren Gizartearen barrena. Hedabideetatik eta kultura-industrietatik bideratutako komunikazioak inoiz ez bezalako indarra hartu du gure gizarte bizitzaren hainbat alderdiren egituraketan. Kultura, politika, identitatea, kontsumoa, ekonomia eta beste hainbat gizarte-arlo haien inguruan antolatzen dira neurri handi batean. Euskal Herria bera, dagoeneko, ez bakarrik zentzu kulturean edo politikoan, baizik eta geografikoan ere, hedabideen eta kultura-industrien bidez eraiki eta transmititzen den errealitate bat da.

Komunikazio hori guztia modu zehatz batzuetan sortzen eta hedatzen da. Eta horiek gaur egun gero eta industrialagoak dira, merkatuari makurtuagoak eta globalagoak. Globalizazio garai hauetan, izateko bi modu daude, zein baino zein garrantzitsuagoa gurea bezalako herri txiki batentzat, eta zer esanik ez euskararentzat edo zehazki baita norberarentzat ere. Bat komunikazioa eta kultura-produktuak produzitzen jakitean oinarritzen da, haiek sortu eta hedatzeko ezagutza, trebezia eta kapazidadeak bereganatzean; bestea, berriz, iturri anitzetatik heltzen zaigun informazioa jasotzen, interpretatzen edo dekodetzen jakitean. Bi modu horiek uztartu eta garatzea ezinbestekoa dugu etorkizuneko herritar alfabetatuak sortzeko eta era berean gure kultura eta hizkuntza mundu globalizatu honetan desagertu ez dadin.

Galdera hauetan sakonduz, gauden seguru iritsiko garela ezagutzera Euskal Herriaren nortasun historikoa, hau da, bere biziraupenerako garatu izan duen bere ekonomia, sortu eta antolatu izan dituen bere erakunde politikoak, sortu eta garatu izan dituen harreman komunitario eta sozietarioak -direla familiakoak eta auzokoak, berdin taldeetan eta lagunarteetan zehazten diren gizarte-bizitzakoak-, gizartetik baztertuak direnenganako agertu izan dituen bere solidaritatezko loturak, asimilaziozko zein zapalkuntzazko politiken aurrez aurre erakutsi izan dituen bere erresistentzi sentimenduak... Hala bedi!

KONPETENTZIA OROKORRAK

Derrigorrezko eskolaldiaren epea amaitzerako (16 urte), Gizarte Zientziak arloaren helburua ikasleek honako konpetentziak hauek lortzea da:

1. Autonomiaz eta zorrotasunez egitea gizarte gaiei buruzko monografia txikiak (historikoak, geografikoak, politikoak, ekonomikoak, etab.), prozedura inductiboak nahiz arrazonamendu hipotetiko-deductiboa erabiliz, modu fidagarrian aurre egiteko etorkizuneko edozein gizarte arazoren edo gai garrantzitsuren azterketari.
2. Modu zorrotzean planifikatzea eta gauzatzea gai politikoei, ekonomikoei, sozialei eta kulturei buruzko dokumentu iturrien kontsulta (liburuak, aldizkariak, datu baseak, iturri estatistikoak, dokumentu ofiziala), baita kode desberdinak dituztenenak ere (hitzezkoak, pikturikoak, grafikoak, numerikoak, etab.), aurrez ezarritako eskema baten arabera alderdi garrantzitsuenak aukeratuz eta, beharrezkoa denean, testuinguru historiko edo/eta geografikoan kokatuz, bilaketaren helburuen araberrako sintesi bat egiteko.
3. Argi eta zehatz idaztea gizarte ezagutza eraikitzeke prozesuari buruzko testu generoak (deskribapen geografikoak, inkesta soziopolitikoak, azalpen testuen txostenak, etab.), baita gizarte harremanetan ohikoak direnak ere (merkataritza gutunak, eskaerak, instantziak, kexak, etab.), bateragarri eginez adierazpenezko objektibotasuna ñabarduretarako gaitasunarekin eta kasu bakoitzean eskatutako erlatibizazioarekin, horren guztiaren bidez komunikazio hobea eta gizarte harremanetara eta komunikazio testuinguruetara hobeto egokituko dena lortzeko.
4. Ikaskideekin batera, interesgarriak diren gizarte gaiei buruzko benetako talde lanak egitea, , modu aktiboan, sormena erabiliz, arduraz eta elkertasunez parte hartuz, bai gizarte antolaketa eta funtzionamendua ezagutzeko (esparru geografikoetan, historikoetan, ekonomikoetan, politikoetan, kulturaletan eta abarretan), bai taldeko lanak egiteko teknikez jabetzeko eta elkarren arteko mendekotasun handiagoa duten pertsonak eta taldeak gizartean positiboki barneratzeko.
5. Interes komuneko gaien kudeaketan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, planteatzen diren gaiak zorrotasunez aztertuz, interes edo ideia gatazkei prozedura demokratikoen bidez aurre eginez eta norberaren uste osoak defendatzeko sendotasuna eta adostasunetara iristeko gaitasuna bateratuz, bazterketarik ez gertatzeko eta modu berean pentsatzen edo sentitzen ez dutenekin bakean eta errespetuz bizi ahal izateko.
6. Ikaslea pertsona bakarra eta konplexua dela onartzea, eta besteekiko harremanetan dituen ezaugarriak eta akatsak onartzea, euskal gizarteko kide moduan identifikatzen duten kultur ezaugarriez jabetzea eta horiek balioestea, eta beste talde batekoa eta, oro har, gizakien taldekoa izatearen sentimendurekin bateragarri egitea, gizarte tolerantia eta ez-baztertzaila eraikitzen saiatzeko.
7. Ekintza irudimentsuak eta eraginkorrak sustatzea eta ekitea, gizarteko errealitateko maila eta esparru desberdinetan, errealitateak eta egoerak aztertuz eta ebaluatuz, ekintza alternatiboak asmatuz, lortu nahi diren helburuetara egokitutako estrategien plangintza eginez eta abian jarritz, eguneroko bizitzako egoeretan ekiteko moduak hobetzeko, bai besteekiko harremanei dagokienez, bai natura baliabideen erabilerari dagokienez.

EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA

1. Non bizi gara eta nola antolatzen dugu espazioa? Bidegurutze eta harreman lekua

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>1.- Euskal Herriaren inguru fisikoaren oinarrizko ezaugarriak eta aniztasuna ezagutu, espazioan kokatu eta modu egokian interpretatu, aldaketak identifikatu eta bizilekuak giza-harremanetan, kulturen, ekonomian eta, oro har, herrien eta pertsonen izaeran eta jokamoldeetan duen eraginaz jabetzeko eta ekintzapide pertsonal arduratsuen bidez praktika koherenteak sustatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gai da Euskal Herriko eskala ezberdinetako mapatan Bizkaiko Golkoa, eta erliebe unitate nagusiak (mendikateak, mendi nahiz ibai nagusiak) egoki kokatzeko, koordenatu geografikoak erabiliz. - Gai da Euskal Herriko mapa mota ezberdinak (erliebe mapak, klima mapak) eta klimogramak irakurtzeko eta interpretatzeko, teknikak modu egokian erabiliz. - Klimaren elementu nagusiak eta hauetan eragina duten faktoreak identifikatu eta deskribatzen ditu eta Euskal Herriko klimen ezaugarriak adierazteko erabiltzen ditu, baita gizakiaren bizitzan nola eragiten dioten edo eragin diezaioketen adierazteko ere. - Euskal Herriko paisaia nagusien elementu fisiko nabarmenenak (erliebe, klima, ur...) konparatu eta laburbiltzen ditu, espazioan kokatuz eta giza-taldeei ematen dieten aukerekin erlazionatuz: - Euskal Herriko paisaia-unitateak behatzen ditu, bere elementuen ezaugarriak zehaztuaz, erlazionatu eta erkatzen ditu, mapatan kokatzen ditu eta giza taldeek paisaiatan duten eragina aztertzen du. - Ingurune naturaletan giza ekintzen eragina identifikatzen eta adierazten du, aldaketa prozesuak sistematikoki behatzeko jarraibideak modu egokian erabiliz, bere kausa eta ondorio ezezkorrak murrizteko hartu behar liratekeen neurriak eta jarrerak adieraziaz.

Kontzeptuak

1.- EUSKAL HERRIAREN KOKALEKU GEOGRAFIKOA

- Eremu epeleko leku bat: koordenatu geografikoak.
- Bidegurutzea Arku Atlantikoan.
- Harreman lekua Europan:
 - Iberiar penintsularen eta Europa kontinentalaren artean.
 - Europa mediterraneoaren eta atlantikoaren artean.
- Kontrastei bide ematen dien kokalekuak:
 - Aniztasuna Euskal Herriko erliebean.
 - Kostaldea: hondartzak eta itsas labarrak.
 - Mendi eremuak – lurralde irekiak.
 - Egoera klimatikoen aniztasuna.
 - Sare hidrografikoa: bi isurialde desberdin.
 - Paisaia anitzak. Elementu natural eta giza elementu bereizgarriak.

2.- KOKALEKUA, FLUXUEN ETA TRUKEEN FAKTORE GISA

- Donejakueko bidea eta Europarekiko kultur trukeak.
- Itsasaldean egotea, eta portuen bidez izandako ohiko merkataritza trukeak. Bilboko portuaren garrantzi berezia. Bilboko kontsulatua.

3.- GIZAKIAREN ERAGINA ESPAZIO ANTOLAKETAN

- Kantauri ertzaren eta Ebroko korridorearen artean: kokaleku estrategikoa Europa barruan.
- Komunikazio sarea: azken hamarkadetako garapena eta proiektu berriak.
 - Autobide, autobia eta errepide-sarea.
 - Trenbideak, aireportuak, merkantzi portuak

<ul style="list-style-type: none"> • Egungo egoera eta proiekturik garrantzitsuenak. - Hiri eta landa-espazioak: hiri espazioen aldaketak eta eragin eremuen hedapena. <ul style="list-style-type: none"> • Landa eremua eta hiri eremua. Baserrien esparrua; hiriguneak eta industrialdeak; • Tarteko unitateak (eskualdeak, eskualde-egiturak) indartzea, lurraldearen oreka handiagoa lortzeko • Komunikazio eta garraio egituren eragina nekazari munduan eta hiri-inguruan • Hiri-espazioen hazkundera • Hiritartze prozesuen azelerazioen ondorioz landa-eremuen berrantolaketa. • Biztanleria motak. • Bizimodua landa eta hiri-eremuan. <p>4.- EUSKAL HERRITIK-EUSKAL HIRIRA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal hirigintza, sorrera, bilakaera historikoa. - Hirien egitura, funtzioak eta espazioa. - Euskal hiri-sistema poli-nuklearra. <ul style="list-style-type: none"> • Hiri-kontzentrazioa. Hiri-hierarkia. • Euskal Herriko lurraldeetako eta haren inguruko hiri-eremuaren zenbait eredu. <p>5.-ETORKIZUNEN ERROKAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hirugarren sektoreko hirietarantz. - Hirietako biztanleen arazoak. Irtenbideen proposamenak. - Giza taldeen eta ingurunearen arteko harremanak eta horren ondorioak. - Gizakiak eragindako ingurumen arazoren azterketa (landaredian, uraren arazoa, klima-aldaketa) . - Ingurunea babesteko abian jarritako politikak .
--

Prozedurak, jarrerak eta esperientziak
<ul style="list-style-type: none"> - Mapa batean puntu bat kokatzeko jarraibideak, koordenatu geografikoak erabiliz. - Eskala eta ezaugarri desberdinak dituzten irudiak, planoak eta mapak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak. - Mapa tematikoak (fisiko, klima, sestra-kurba, topografiko...) irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak. - Espazioan orientatzeko eta kokatzeko teknika geografikoak. - Paisaiak zuzenean edo zeharka behatzeko teknikak. - Errealitate geografikoko paisaietan aldaketa prozesuak sistematikoki behatzeko jarraibideak. - Gizarte esparruko argudio testuak zorrotz eraikitzeko jarraibideak. - Paisaien eratzean, gertaera geografiko jakinetan eta ingurumena degradatzean islatzen diren ingurunearen eta giza ekintzaren arteko harremanak aztertzeke jarraibideak. - Inguruan dituen degradazio-arazoak aztertzeke jarraibideak.

2. Zein eta zenbat gara? Demografiaren egitura eta dinamika	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>2.- Euskal Herrian azken bi gizaaldietan bereziki egon diren mugimendu demografikoak, aroak eta horien arazoak eta ondorioak ezagutu informazio egokia aukeratuz, adierazpen grafiko desberdinak interpretatuz eta ezagutza hori adierazpen bide ezberdinez komunikatu, demografiaren dinamikak kultural, hizkuntzan, ekonomian duen eraginaz jabetzeko eta elkarbizitarako jarrerak lantzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal gizarteko mugimendu demografikoei buruzko datuak eta estatistikak, egungoak zein iragan hurbilekoak, biltzeko gai da, eta horiek deskribatzen ditu demografia-kontzeptuak, grafikoak eta mapak zuzen erabilia, eta denboran alderatu ondoren izandako aldaketataz, bereziki emigrazioak eragindakoaz, jabetzen da. - Informazio bilatzeko estrategia ezberdinak egoki erabiliz, egungo euskal egoera demografikoaren joera nagusiak ondorioztatzeke gai da, horiek izan ditzaketen ondorio sozial, ekonomiko, kultural eta abarrekin erlazionatzen ditu. - Euskaldunak historian munduan zehar nola zabaldu diren ezagutzen du, hauen kopurua, bizileku nagusiak eta migrazio mugimenduen dimentsio sozialari buruzko informazio bilatzeko teknologia berriak egoki erabiliz.
Kontzeptuak	
<p>1.- BIZTANLERIAREN EGUNGO EGITURA EUSKAL HERRIAN ETA LURRALDE HISTORIKOKA:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herria mendebaldeko gizarte modernoa, 	

- Guztiko biztanleria eta dentsitate demografikoa.
- Adinaren, sexuaren eta jatorriaren arabera.
- Ikasketa maila, hizkuntza, jardura sektoreak, etab.
- Euskal biztanleria ezaugarriak: biztanleria zahartua; Desberdintasun handiak okupazioan jardura sektoreen arabera.

2.- DEMOGRAFIAREN DINAMIKA EUSKAL HERRIAN ETA LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN: IRAGANETIK ORAINERA:

- Hazkunde tradizionalaren eredua: hazkunde naturala eta migrazio joerak.
- Trantsizio demografikoa, aldaketak hazkunde naturalean (heriotzak eta jaiotzak): noiz, zergatik.
- Barne eta kanpoko migrazio-mugimenduak. (Azken 125 urteak).
 - Euskaldunak historian, munduan zehar: Ternuako Arrantzaleak, Ameriketako konkistan, migrazio ekonomikoak Ameriketara bereziki.
 - Euskal Diaspora: EH kanpo dauden euskaldunen kopurua, bizileku nagusiak, egoera...

3.- ETORKIZUNEN AUKERAK EUSKAL HERRIAREN ETORZAT: INMIGRAZIO ANITZA ETA KULTUR ASKOTARIKOAN BIZITZEKO ERROKAK:

- Inplikazio ekonomikoak eta sozialak.
- Demografiaren etorkizuna.
- Hezkuntza eta kultur beharrak.
- Zibilizazioak eta kulturak integratu beharra.
- Integrazio soziala eta kulturala.
- Kultura askotariko pertsonak eta taldeen onarpen, errespetu eta elkartzasuna.

Prozedurak eta jarrerak

- Informazio iturrietatik (estatistika, sarea...) demografiaren ezaugarri eta joerei buruzko informazioa esanguratsua biltzeko jarraibideak.
- Informazioa interpretatzeko, lantzeko eta erregistratzeko teknikak.
- Gai bati buruzko mapak irakurtzeko eta interpretatzeko teknikak.
- Demografia-datuak eta grafikoak (barra-diagramak, biztanleria piramideak...) irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Informazio estatistikoa grafikotara pasatzeko jarraibideak.
- Demografiaren ezaugarri eta joerei buruzko txostenak planifikatzeko eta egiteko jarraibideak.
- Lortutako informazioa idazteko eta emaitzak ahoz komunikatzeko jarraibideak.

3. Nondik gatz? Euskal Herriaren bilakaera historikoa Europan eta munduan.

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p>3.- Euskal Herriko gizateriaren sorrera, historiaurrea, antzinatea eta erromatarkuntza garaitik gaur arte bizi izan den prozesu politikoaren, sozialaren, ekonomikoaren, eta ideologikoaren, arrasto nagusiak ezagutu, dokumentazio iturri desberdinez baliatzeko teknikak landuz, ikerketa historikoaren metodologia erabiliz, eta ibilbide horretan emandako gertaerak denboran eta espazioan egoki kokatuz, horiek gaur egungo errealitatea (politikoa, soziala, ekonomikoa...) nola baldintzatzen duten jabetzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herrian bizi den gizateriaren sorrera eta historiaurreko gizartearen bizimoduak utzi dituen arrasto nagusiak ezagutzen ditu, idatzi gabeko dokumentu historikoak interpretatzeko jarraibideak eta teknikak egoki garatuz. - Ezagutzen du eta egoki deskribatzen ditu historiaurreko eta historiako gertakari esanguratsuenak, idatzizko eta ez idatzizko iturrietatik informazioa biltzeko jarraibideak egoki landuz. - Zerbait garaitako mapa historiko batzuetatik abiatuta, Euskal Herriaren lurraldeetako sorrera, bilakaera eta gertaera historikoen ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu. - Euskal herriko historiako aldi eta gertaera esanguratsuenak, denboran eta espazioan kokatzen ditu, historiako ohikoen diren konbentzioak eta kronologia-unitateak erabiliz. (ardatz kronologikoak, frisoak, etab.) ezaguera historiko horiek gaur egungo arazo nabarmenak ulertzeko erabiliaz. - Informazio iturriak helburuaren arabera egoki aukeratzeko gai da, informazio esanguratsua bildu, eta euskarri egokietan erregistratzen du. - Gertakari jakinei buruzko ikuspegi desberdina duten dokumentu historikoak

	<p>kritikoki aztertzen ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jasotako informazioa berrantolatzeke gai da sintesi prozedurak (laburpen, eskema, koadro, grafiko eta abar) erabiliz, egiten zaizkion buruzko galderen ondorioak era egokian aurkeztuaz. - Dokumentu historikoak kritikoki interpretatu ondoren bertako informazioa idatziz eta ahoz komunikatzeko gai da hiztegi egokia erabiliz. - Euskal Herriko gertaera historiko esanguratsuen kausa eta ondorioak identifikatzeko gai da euren arteko loturak zehaztuz eta kausalitate anitza kontuan izanik.
--	---

Kontzeptuak

I HISTORIAURREA

- 1.1. Lehen biztanleak. Paleolitoa
 - Ustekabeko aurkikuntzak: horien kokapena
 - Euskal lurraldeetako lehen biztanleak.
 - Bizimoldeak haitzuloetatik kostaldera.
 - Aztarnategi nagusiak: Benta Laperra, Santimamiñe, Ekain, Altxerri, Isturitze...
- 1.2. Neolitoa
 - Neolitoaren ezaugarriak euskal lurraldetan.
 - Lehen herrixkak.
- 1.3. Metalen aroa. Kobrearen eta brontzearen sarrera
 - Iparraldeko eta hegoaldeko eraginak.
 - Tresneria berrien aztarnak.
 - Megalitisismoaren garapena: trikuharriak eta tumuluak.
- 1.4. Euskara
 - Euskararen jatorria eta bilakaera.
 - Beste hizkuntzekiko harremanak.

II. HISTORIA

1. ANTZINATEA

- 1.1. Zibilizazio zelto-iberikoaren azalpenak Araban eta Nafarroan
- 1.2. Greko-erromatar idazleen iritziak euskaldunekiko.
- 1.3. Erromatarkuntzaren ondorioak gizartea eta antolamendu politikoan. Latinaren eragina euskararengan.
- 1.4. Mundu klasikoaren kultura ondoreak gure egungo zibilizazioari egindako ekarpenak.
- 1.5. Kristautasunaren hedapena eta eragina.

2. EUSKAL HERRIA ERDI AROAN

2.1. ALDAKETA GEOPOLITIKOAK IV. MENDETIK AURRERA

- Baskonia-Akitania bisigodoen, frankoen eta Islamaren artean. Herrialde horien arteko bakezko harremanak eta haserreak. Al Andalus/Tutera.
- Nafarroako erresuma eta Pirinioetatik hegoaldera eta iparraldera dauden euskal lurraldeak:
- Lurralde-antolakuntzaren bilakaera estatu europarren eraketa-prozesuan.
- Euskal lurraldeen barne eta kanpo-harremanak.
- Ingalaterrako koroa Lapurdin eta Zuberoan.
- Ehun urteetako Gerrak Zuberoan eta Lapurdin izandako eragina.
- Nafarroako Erresuman izandako aldaketak. Gaztelaren gerra eta konkista.

2.2. EUSKAL HERRIKO GIZARTEA ETA ZIBILIZAZIOA ERDI AROAN:

- Erdi Aroko gizartea: Jaunak, apaizak eta nekazariak.
- Behe Erdi Aroko hirien loraldia eta burgesiaren azalpena.
- Erljiioaren eragina: Monasterioak eta kristau-eliza.
- Mairuak/kristauak/juduak. Hiru erlijio eta kulturen arteko elkarbizitza.

2.3. EKONOMIAREN EZAUGARRIAK ERDI AROAREN

- Itsas nabigazioa. arrantza eta merkataritza. Bilboko portua eta kontsulatua. Bale-arrantza.
 - Euskaldunak Amerikako konkista eta kolonizazioan. Artoaren sarreraren garrantzia nekazaritzan.
 - Burdinolak eta ontziolak.
 - Berant Erdi Aroko gatazka sozio-ekonomikoak: Gerra, gosete eta izurriteak
- Nekazarien oldarpenak eta emantzipazioak.

Gremioen altxaketak.

Ahaide Nagusien arteko borrokak .

2.4. FORU-SISTEMAREN ERAKETA EUSKAL LURRALDEETAN:

- Foruen eta erakundeen sorrera eta hedapena.
- Egungo zenbait erakunderekiko dituzten harremanak.

III. EUSKAL HERRIA ARO MODERNOAN

1. KULTURAREN BILAKAERA XVI-XVIII MENDEETAN.

- Kristau erreformak eta katolikoen kontrarreforma. Joana Albretekoa eta Joannes Leizarragaren Biblia.
- Ilustrazioa: Bergarako Errege Mintegia, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte eta Elhuyar anaiak.

2. LURRALDEEN BILAKAERA

- Espainiar Borbondarren erreformismoa. Foralismoaren krisiak, Matxinadak.
- Frantziako Borbon etxearen gorakadaren ondorioak Ipar Euskal Herrian. Enrike III.a (Nafarroakoa)- IV.a (Frantziakoa). Luis XIV.a eta Utrecht-eko hitzarmenaren ondorioak.
- Euskal Herriko lurraldeen legedi eta erakundeen bilakaera.

3. ALDAKETAK EUSKAL HERRIKO GIZARTEAN ETA EKONOMIAN.

- Demografia-gorabeherak.
- Artoaren ekarpena eta nekazari krisiak.
- Itsas-merkataritza: artilea, burdina. Mundu kolonialaren eragina. Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra.
- Ternuako arrantza, balearen ehizatzea.

IV. ARO GARAIKIDEA: 1789-1914

1. Antzinako Erregimenaren krisialdia.

- 1.1.Frantziako Iraultza eta Napoleonen Inperioaren ondorioak Euskal Herrian.
 - Frantziako Iraultza (1789-1799). Foruen deuseztapena eta departamentuen sorrera Iparraldean
 - Konbentzio gerra (1793-1795) Hego Euskal Herrian.
 - Independentzia gerra eta bere ondorioak Hego Euskal Herrian.
- 1.2. Euskal Herriko bilakaera historikoa XIX. mendean.
 - Espainiako estatu liberalaren eraketa. Tradizionalismoa eta liberalismoaren arteko gatazka. Lehen Gerra Karlistaren eragina eta ondorioak Euskal Herrian.
 - Bigarren gerla karlista (1872-1876). Foruen abolizioa.
 - Euskal nazionalismoaren sorrera.

2. EUROPAREN BILAKAERA EKONOMIKOA ETA SOZIALA

- 2.1. Iraultza industrialaren ezaugarriak Euskal Herrian. Sorrera, hedapena eta bilakaera
- 2.2. Industrializazioak eragindako aldaketa sozio-ekonomikoa.
 - Demografia igoera eta emigrazioa. Hirien hazkundera.
 - Gizarte kultur-anitza.
 - Langile-mugimenduak eta sozialismoa.

3.XX. MENDEKO BILAKAERA POLITIKOA

- 3.1. Lehen mundu gerra eta haren ondorioak Ipar Euskal Herrian .
- 3.2. Bigarren Mundu Gerra eta haren ondorioak Ipar Euskal Herrian bereziki.
- 3.3. Gerra arteko Espainiar krisi egoeraren ondorioak Hego Euskal Herrian. Euskal estatutua garatzeko oztupoak Bigarren Errepublikan zehar. Espainiako Gerra Zibilak Euskal Herrian izandako eragina. Francoren diktaduraren eraginak ekonomia eta gizartean. Eusko Jaurlaritza atzerrian. Frankismoaren aurkako oposizioa.
- 3.4. Frantzia eta Ipar Euskal Herria, IV. eta V. Errepublika garaian.

V. EUSKAL HERRIA GAUR

1. Espainiar trantsizioa. 1978ko konstituzioa eta autonomi-estatuaren sorreran. EAEko 1979ko autonomia estatutua. Nafarroako Foru Hobekuntza. Lehen Jaurlaritza.
2. 1980. hamarkadako krisi ekonomikoaren eragina Euskal Herrian.

3. Espainia Europar Batasunean integratzeak Hego Euskal Herrian izandako ondorioak.

Prozedurak eta jarrerak

- Hainbat motatako dokumentu historikoak (idatzizkoak eta ez-idatzizkoak) irakurtzeko, interpretatzeko eta depuratzeko teknikak.
- Informazio bibliografikoa bilatzeko jarraibideak.
- Ardatz kronologikoak, kronologia taulak, denbora lerroak eta friso historikoak interpretatzeko eta osatzeko teknikak.
- Gertaera historien kausalitate-aniztasuna aztertzeke jarraibideak: gertaera historikoen eta bilakaera- eta aldaketa-prozesuen kausak eta ondorioak aztertzeke jarraibideak
- Euskal Herriko eta Espainiako arkeologia aztarnei eta ondare-elementuei buruzko informazioa biltzeke jarraibideak.
- Gizarte historikoen eta egungo gizarteen arteko aldeak eta berdintasunak ezagutzeko, aztertzeke eta alderatzeko teknikak.
- Mapa historikoak interpretatzeko, konparatzeko eta eraikitzeke jarraibideak.
- Informazio esanguratsua hainbat iturrietatik (ikonografiko, arkeologiko, idatzizko, etab.) lortzeke, interpretatzeko eta erregistratzeko jarraibideak.
- Lortutako informazioa sintesi prozedurak erabiliz erregistratzeko jarraibideak.
- Aldiak, gertaera historikoak eta datuak tokian, denboran eta espazioan kokatzeko jarraibideak.
- Ikerketa historiko txikiak planifikatzeko eta egiteke jarraibideak.
- Ikerketa eta lan monografikoen emaitzak ahoz, idatziz komunikatzeko jarraibideak.
- Bizi beharreko esperientziak: Aztarnategi esanguratsuenak ezagutu eta bisitatu ditu: Behe paleolitoa (Irikaitzeke aztarnategia Zestoan), Erdi paleolitoa (Murba, Axlor, Lezetxiki, Amalda, Isturitze...), Goi Paeolitoa (Benta Laperra, Santimamiñe, Ekain, Altxerri, Isturitze...)Arte higigarria: (Isturitze, Torre, Ekain...) eta gainerakoetakoko pieza nagusiak

4. Zein dira mundu ikuskerak eta erlijioak?

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>4.-Euskal Herriko historiaurreko eta historiako kultura, mitologia eta erlijioen elementuak identifikatzea eta elkarrekin lotzea, horien esanahia eta egun duten presentzia balioesteko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Euskal Herriko historiaurreko eta historiako mitologia eta erlijioen elementuak ezagutzen ditu, -Atal eta biografia garrantzitsuak ikertzeke oinarritzko urratsak egoki lantzen ditu, hauen bidez euskaldunon kosmobisioa ulertzeke eta garatzeko. -Euskal Herriko iraganeko sinbologia erlijiosoaren zenbait elementu identifikatzeko gai da. -Euskal mitologiako irudiek herriarentzako zuten balioa eta esanahiaz jabetzen da.
Kontzeptuak	
<p>1.GURE KULTURAREN SUSTRAI BIZIAK</p> <p>1.1 Sorrera: gizakia eta natura. Natura eta euskal kontzeptu sistema.</p> <p>1.2. Euskal Herriaren historiaurreko eta historiako kultur eta erlijio zikloak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Denborari buruzko kultur eta kontzeptu erlijiosoa. - Egutegia eta sakraltasuna: neguko festak ,udaberriko festak, udako festak, udazkeneko festak. - Jainkoen garaia: denbora, mitologia eta kosmologia. - Denboraren eta erlijiosotasunaren arteko lotura: kristau kultura eta denborazkotasuna. Kristau denboraren urteko zikloa. <p>1.3. Erlijio jarrerak adierazten dituzten euskal kultur ondareko narrazioak, kondairak eta mitoak.</p> <p>2. ERLIJOAREN GERTAKARI BEREZIA</p> <p>2.1. Erlijioaren gertakariaren testuingurua: ehiza errituak, ibaiak eta ugalkortasuna, jaiotza, hildakoak eta arbasoak gurtzea, garezurra gurtzea.</p> <p>2.2. Hierofaniak, sakratuaren bitartekotza gisa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Natura, goieneko kosmosa-mundua (Ortzi, ilargia, argia, euria, tximista, ortzadarra, etab.). - Animaliak. - Heriotza eta inguruak. <p>2.3. Transzendentziaren zeinuak eta ikurrak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Santutegia eta ikurrak. 	

<ul style="list-style-type: none"> - Hilobi espazioak. - Monasterioak eta ermitak. <p>2.4. Esperientzia estetikoak naturan</p> <p>3. EGUNGO AZTARNAK</p> <p>3.1. Euskal lurralde ezberdinetako jai egutegia: errituak, pertsonaiak, tradizioak, etab.</p> <p>3.2. Festa erlijiosoak Euskal Herrian: komunitate eta oroigarri balioa. Zaindariak eta herri gurtza.</p> <p>3.3. Erliijo handien aztarnak Euskal Herrian.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kristautasunaren historia: <ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herrian sartzea. - Santiago bidea Euskal Herrian. - Monakotza eta eskeko ordenak. - Aro Modernoan errotzea: elizbarrutietako apaizak eta erliijo ordenak. - Euskal Herrian kristautasuna hedatu zuten pertsona ospetsuak. - Inkisizioaren auzitegia Zugarramurdin. - Absolutismoa: Euskal Herriko apaizak eta Jesuiten itzulera. - Karlismoa: Jainkoa, Aberria eta Erregea. - Nazionalismoa eta erlijoa. - Banu qasimtarak eta Iruñeko Erresuma. - Islamaren agerpena eta garapena, arabismoak euskarari. - Judaismoa. Bere aztarnak eta eragina euskal lurraldeetan, Nafarroa eta Lapurdin bereziki - Erliijoaren kultur adierazpenak: festak, ohiturak, idatziak, ikurrak, leku sakratuak.
Prozedurak eta jarrerak
<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko erliijo ondaretik hartutako lanak zehatz-mehatz deskribatzeko jarraibideak (arte, musika, ohiturak, literatura, etab.). - Euskal kultur ondarean erreferentzia erlijiosoak dituzten elementuak identifikatzeko irizpideak: musika, arte adierazpenak, ikurrak, festak, ohiturak, mezuak, esaera zaharrak, lekuak, denborak, etab. - Arte erlijiosoaren obrak behatzeko, ikurrak ulertzeko eta musika sakratua entzuteko orientabideak. - Euskal Herriko kultur gai eta biografia garrantzitsuak ikertzeko oinarritzko urratsak.

5. Nola bizi gara elkarrekin eta nola konpontzen ditugu arazoak? Arauen beharra: zuzenbidea

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>5.- Euskal Herriak bere ibilbide historikoan zehar ezagutu dituen gatazka soziopolitiko eta kulturalak ezagutu, denbora eta espazioan ondo kokatu eta horien funtsezko arazoak zorrotasunez eta sistematizazioaren bidez interpretatu, gure egungo gizartearen ematen diren arazo eta gatazka pertsonal zein kolektiboak hobeto ulertzeko eta interes komunekin gaien kudeaketan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzeko eta bizikidetzarako arauak elkarren artean eraikitzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriak ezagutu dituen gatazka soziopolitikoak alderdi guztiei erreparatuta modu kritikoan aztertzen ditu, gatazka aztertze eta elkarriketaren bidez lantzeko protokoloak eta jarraibideak modu egokian landuz. - Euskal Herriak ezagutu dituen gatazka sozial nagusiak modu kritikoan aztertzen ditu, gutxienezko zorrotasunaren eta sistematizazioaren bidez eta bibliografia nahiz lehen eskuko dokumentu iturriak egoki erabiliz eta egoera injustuen aurrean hauek orekatzeko ahalegina egiten du. - Bere inguru hurbilean dauden gatazka identifikatu eta deskribatzen ditu, naturaltasunez bere izaera onartu eta hauei aurre egiteko prozedura bakezaleak erabiltzen ditu, arazo horiek elkarbizitza hobetzeko aukera bezala ikusiaz. - Elkarbizitzarako arau eta legeetara jotzen du gatazkaren bati konponbidea eman edota mota ezberdinetako gizarte-gatazkari aurre egiteko. - Elkarriketa eta prozedura bakezaleak defendatzen ditu pertsonen, taldeen eta herrialdeen arteko gatazka konpontzeko.
Kontzeptuak	
<p>1.- ESKUBIDEEN BILAKAERA HISTORIKOA:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal lurraldeetan. Ohiturazko zuzenbidetik idatzizko bildumetara. - Pertsona. - Familia, ahaidetasun mailak: etxeak, senideak, ahaideak, familia izena (edo abizena), familiak arbasoekiko dituen betebeharrak, ahaideen arteko elkartasuna, familia festak urtean zehar (senitarte). - Komunitatea - Herriko auzo egituraketa (<i>Auzoa</i>). - Batzarra: auzo bateko etxeen batzarra; biltzeko ohiko lekua (Ermita). - Auzokoen batzarretik eratorritako karguak (<i>Basalkatea, basazaina, etxezaina</i>). Karguen 	

txandaketa.

2.- EUSKAL ONDAREAN ARAKATZEN:

- Euskal Herri zaharrean gizabideak zuen garrantzia eta gaurko gizarte sekularatuan nagusitzen diren ideologiak
- Matriarkatuaren azterketa: oinarrizko printzipioak eta egituratzen duten erregelak.
- Patriarkatuaren azterketa: oinarrizko printzipioak eta egituratzen duten erregelak.
- Euskal Herrian jabetza eskuratzeko moduak: okupazioz, lanez, herentziaz...
- Euskal Herriko jabetza-mota espezifikoak: jabetza solidarioa (gizabanakoen interesen gainetik gizarte-interesak jartzen dira).
- Trukea: bere gizarte-esanahia.
- Bostekoa ematea, kontratua egiteko modua.
- Hitz-emate edo promesa, betebeharraren forma espezifikoak.
- Auzolana eta bere oinarria, lana ulertzeko forma espezifikoak gisa, eta bere garrantzia mentalitate kooperatiboan.
- Gizon/emakume ona» gatazka-konpontzaile gisa eta horren aldaerak (bitartekaritza egitea, adiskidetzea...).
- Euskal auzotasun zibila eta tokian tokiko auzotasuna

3.- EUSKAL HERRIAK EZAGUTU DITUEN GATAZKA SOZIOPOLITIKO ETA KULTURALAK:

- Erromatar kolonikuntzatik hasi eta oraingo egunak arte
- Nafarroako erresumaren konkista militarra
- Foruen abolizioa
- Gizarte-gatazkak forualdian
- Lan-gatazkak,
- Gatazka soziopolitikoak eta kulturalak aro moderno eta garaikidean:
- Gizarte eta genero indarkeria.
- Immigrazioa.
- Arrazakeria eta xenofobia.

4.- KONPONTZEKO DAGOEN GATAZKA BAT: BAKEAN ETA DEMOKRAZIAN BIZITZEKO EREDUA BILATZEA:

- Alderdi politikoak eta euren posizio ideologikoak, lehen eta orain.
 - Aukera soziopolitiko ideal tipikoak: (Neo)liberalak, sozialdemokratak, kooperatibistak eta (neo)komunistak.
 - Kulturaz eta herri atxikimenduaz lehentasun ezberdinak nahasian: euskal, nafar, espainol eta frantses. Horien aukera ezberdinetatik sortzen diren asmo politiko ezberdinak.
 - Euskal Herria, Espainia, Frantzia, Europa eta orainaldiko globalizazio berria epaitzerakoan nabarmentzen diren korrelazioak.
 - Euskal herrietako hauteskundeetan parte hartzen duten alderdi politikoek eta koalizioek ordezkatzeko dituzten egitasmo politikoaren ezaugarriak
- Azken 30 urtetan gatazka politikoa konpontzeko xedearekin egin diren saiakera garrantzitsuenak: Txiberta, Argel, Lizarra-Garazi.
- Gatazkaren ondorioak.
- Herrietik, gatazka konpontzeko xedearekin, sortutako ekimenak.
- Beste trantsizio baterantz?

Prozedurak eta jarrerak

- Gatazkak aztertzeko protokoloak.
- Gatazkak elkarrizketaren bidez lantzeko jarraibideak.
- Bizikidetzaren arauak egiteko edo berrikusteko jarraibideak.
- Ikerketa lan txikiak egiteko jarraibideak.
- Euskal Herrian elkarrekin bizitzeko elementu positiboak (pertsonek, taldeak, proiektuak, erakundeak, legeak, etab.) behatzeko moduak, eta ekintzen eta helburuen balorazioa.
- Euskal Herriaren egungo arazoak identifikatzeko eta irtenbideak proposatzeko urratsak.
- Gizarte arazo bati buruzko ikuspegia arrazoi bidez justifikatzeko elementuak.
- Euskal gizarteko kezka nagusiak aukeratzeko eta lehentasunak ezartzeko irizpideak
- Planteatutako arazoaren gainean informazioa eskuratzeko, jasotako materialean oinarrituz balorazio kritikoa egitea eta norberak beste ikuspegi pertsonala azaltzea.

6. Nolakoak dira eta nola funtzionatzen dute erakundeek? Egitura eta funtzionamendua

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>6.- Euskal Herriak historian zehar bere burua antolatzeko xedearekin osatu dituen legedi zein erakunde politikoen funtsa eta egitura, sorrera eta garapena, baita gaurko gizartearen erreferentziak gertatzen zaizkigun taldeena ere (familia, eskola, herria ...) ezagutu eta hauek baldintzatzen dituzten kanpo nahiz barneko faktoreak zein antolakuntza egiturak eta ohiko funtzionamendua taldean kritiki aztertu, erakunde horietan jarrera arduratsuz partehartzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen pertenezia eta erreferentzia taldeetan (familia, eskola, herria...) parte hartzen du modu eraikitzailean, arduratsuan eta solidarioan. - Euskal Herriak bere burua antolatzeko xedearekin osatu dituen legedi zein erakunde politikoen sorrera, bilakaera historikoa ezagutzen ditu, hauek baldintzatzen dituzten kanpo nahiz barneko faktoreak zein antolakuntza egiturak eta funtzionamendua kritiki aztertuz. - Ikasleak parte hartzen duen maila ezberdinetako erakundeetan (familia, eskola, udalherria...) dauden balio demokratikoak identifikatzen /onartzen ditu, eta erakunde hauetako ezarritako arauak errespetatuaz, desadostasunei aurre egiteko tresnatzat hartzen ditu. - Parte hartzen duen demokrazia urriko erakunde eta taldeen funtzionamenduaren aurrean kritiko agertzen da, hauek hobetzeko proposamen eta ekimenak aurrera eramanez. - Eskala desberdinetako mapatan Euskal Herriko banaketa politiko-administratibo nagusiak kokatzen ditu, Estatu espainiar eta frantsesaren barneko antolaketa politiko-administratiboaren barne, eta Europar Batasuneko kide, Euskal Herriko lurralde antolaketa identifikatuz, - Egungo euskal legedietan lehengo foruen arrastoak identifikatu eta aztertzen ditu.

Kontzeptuak

1.- ERAKUNDEEN EZBERDINEN EZAUGARRIAK.

- 1.1 Erakunde primarioak: Familia eta eskola.
 - Osaera eta egitura.
 - Funtzioak eta funtzionamendua:
 - Harremanak eta gatazkak erregulatzea.
- 1.2 Herri erakunde espezializatuak (sindikatuak, auzo elkarteak, enpresa elkarteak, kontsumitzaileen elkarteak, gobernuz kanpoko erakundeak...): helburuak eta funtzionamendua.
- 1.3. Erakunde politikoen antolaketa eta funtzionamendua, mailen arabera
 - Euskal udalerrietako antolaketa: iragana eta oraina:egitura,oinarrizko funtzioak eta funtzionamendua: arauak eta herritarren parte hartzea erakundeetan..
 - Euskal lurralde historikoen antolaketa politikoa: egitura,oinarrizko funtzioak eta funtzionamendua: arauak eta herritarren parte hartzea.
 - Euskal Herria bi estatutan, hiru administrazio.
 - Autonomiadun lurraldeen antolaketa Espainiako Estatuaren esparruan
 - Egitura. Oinarrizko funtzioak. Funtzionamendua: arauak eta parte hartzea.
 - Beste autonomia-erkidego batzuen enklabeak Euskal Herrian (Trebiño, Villaverde Turtzioz)
 - Iparraldeko lurraldeen egoera eta departamentuen funtzionamendua Frantziako Estatuan.
 - Erakunde estatuen egitura,oinarrizko funtzioak eta funtzionamendua: arauak eta parte hartzea.
 - Euskal Herria Europar Batasunean.
 - Europako Batasuneko Erakunde Politikoak. Sorrera, bilakaera. Funtzioak. Xedeak eta zailtasunak.
 - Euskal lurraldeak Europar-Batasunaren esparruan. Harreman-eredu berria
 - Europar herritartasuna.
 - Europar Batasuna eta estatu gabeko nazioak: Euskal Herriaren kasua.

2.- EUSKAL ERAKUNDE ETA LEGEEN BILAKAERA HISTORIKOA.

- Foru idatzien sorrera. Lurraldeetako foru eta erakundeen sorrera eta ezaugarriak.
- Foruen aurkako jazarpenak espainiar eta frantziar borboindarren eskutik Aro Modernoan zehar
- Iraultza frantsesaren ondorioz Iparraldeko lurraldeetako egoera. Foruen deuseztapena eta departamenduen sorrera.
- 1839ko urriaren 25eko Legea. Foru baimenaren (gain-karta edo usadioa) balio eza.
- Nafarroan: Foruen Aldakuntzarako Legea edo "Lege itundua" (1841)
- Gamazada (1893-1894)
- 1876n Foruen deuseztapen legea. Kontzertu edo Itun ekonomikoak.
- Foruen deuseztapen legearen aurkako herri oposizioa: Liberal foruzaleen borroka. Arturo Campion. Euskal

nazionalismoaren sorrera.

- Euskal estatutuaren ahalmenak. Lehen Eusko Jaurlaritza.
- Francoren diktadura garaiko egoera. Ahalmen eta eskubideen deuseztapena . “provincias traidoras.
- Euskotarren jatorrizko eskubideak eta beren aldi aldiko borondatearen errespetua 1978.eko Konstituzioan.
- 1979 Gernikako Estatutua eta Foru Hobekuntzen (1982)ezaugarriak. Kontzertu ekonomikoak.

3.- XXI.MENDEAREN HASIERAN EUSKAL HERRITARREN JOAN-ETORRIA BALDINTZATZEN DUTEN ITUN ERAKUNDE POLITIKOAK:

- Herrien eskubideak defendatzen duten Nazioarteko Itunak.
- Erakunde eta Aliantza Militarrak, mundu guztiari erasaten diotenak.

Prozedurak eta jarrerak

- Inkestak egiteko eta betetzeko jarraibideak.
- Nola landu bildutako informazioa.
- Nola egin txostenak, inkestetan bildutako datuetatik abiatuta.
- Famili zuhaitzak egiteko jarraibideak.
- Dokumentu ofizialak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Instantzia ofizialei zuzendutako dokumentuak egiteko edo betetzeko jarraibideak (eskaerak, erreklamazioak).
- Euskal gizartearen elementu soziokulturalak aukeratzeko eta deskribatzeko irizpideak, baita bertako erakundeak eta horiek antolatzeke eta bizitzeko modu bereziak aukeratzeko eta deskribatzekoak ere.

7.Nola lortzen ditut beharrezkoak zaizkidan gauzak? Antolaketa eta funtzionamendu ekonomikoa

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p>7.- Euskal Herriko zein berau osatzen duten lurralde historiko bakoitzeko ekonomi sektoreetako urrats nagusien historia, eta egungo gizartearen antolaketa eta funtzionamendu ekonomikoa ezagutu, hainbat iturriren bitartez lortutako informazioaz baliatuz eta ikerketa lan txikien bidez antolaketa ekonomiko horretan parte hartzen duten eragile desberdinen arteko korrelazio esanguratsuenei buruzko norbere interpretazioa eta arrazoitzea komunikatuz.</p>	<ul style="list-style-type: none">- Lurraldeka zein eskualdeka, Euskal Herriko ekonomi sektoreen jatorria, garapena eta etorkizuneko aukerak, IKT, grafiko eta mapak erabiliaz deskribatzen ditu, ikerketa lan txikiak eginaz eta hainbat iturriren bitartez lortutako informazioaz egoki baliatuz.- Informazio ezberdinak interpretatuz, nekazaritza ustiapen sistema nagusien ezaugarriak lantzen ditu eta euskal nekazaritzaren egungo arazoak aztertzeke gai da.- Industria jardueretan gertatzen ari diren eraldaketak deskribatzen ditu, Euskal Herriko ekoizpene nagusiak kokatuz, eta sektore honen egungo errealitatea aztertzen du iturri ezberdinetatik deslokalizazio eta globalizazio ekonomikoen eragina ondorioztatuz.- Hirugarren sektoreak izandako bilakaera eta eraldaketak identifikatzen ditu, eta eraldaketa horien ondorioz Euskal Herrian harreman ekonomiko eta sozialetan gertatzen ari diren aldaketa aztertzen ditu.- Mota guztietako bitartekoak erabiltzen ditu (IKT, estatistika..) jarduera ekonomiko buruzko informazioa lortzeke. Jasotzen duen informazioaren zuzentasuna eta objetibotasuna egiaztatzeke gai da.

Kontzeptuak

1.- EUSKAL HERRIKO EKONOMIAREN EZAUGARRIAK:

1.1 Tradiziozko artzaintza

- Euskal Herriko artzaintza motak eta eremu nagusiak:
- Artzainaren tresneria eta artisau lanak: *abatza, kaikua, malatxa, etab.*
- Ardi artzaintzaren produktuak: gaztagintza tradizionala; beste esneki batzuk.

1.2. Nekazaritza eta abeltzaintza

- Nekazaritza motak klima eta lurren arabera.
- Landutako laboreak. Historian zehar sartutako landareak (artoa, patata, babarruna, tomatea, etab.).Gaur egungo

espezializazioa.

- Nekazarien etxe motak: Baserria, Laborantza etxea, Eraikin osagarriak,
- Nekazaritza tresnak. Ohiko lanabesak, makina modernoak.
- Nekazaritzari lotutako usteak eta erritoak.
 - Nekazaritza babesten duten santuak (San Blas, San Isidro, San Fausto, San Marko, etab.).
 - Babes errituak: haziak bedeinkatzea; soeroen babesa; lurra bedeinkatzea; ekaitzen aurkako konjuruak.
 - Ohitura magikoak eta erlijio ohiturak: solstizio suak (San Joan, San Anton); letaniak eta prozesioak; fruituen eskaintzak.
- Abeltzaintza ikuilatua.

1.3 Arrantza

- Arrantzaren historia. Balearen harrapaketa Ternuan.
- Altura eta baxurako arrantzak. Ohiko modalitateak. Gune nagusiak. Ontzi motak. Harrapatzen diren espezieak.
- Arrainaren salmenta lonjetan. Arraina kontserbatzeko metodoak.
- Arrantzaleen kofradiak. Jatorria, funtzioak eta arauak.

1.4 Artisautza eta industria tradizionalak

- Artisautza: oinarrizko bizimoduen jarduera osagarri: lanabesak eta tresnak; Artisautza motak: Abarkagintza, artilea, lihozko jantzigintza, egurrezko eta hezurrezko tresnen ekoizpena (kaikua, abatza, etab.).
- Meatzaritza, eltzegintza, errementaritza, teilagintza, otarregintza, ikazkintza.
- Antzinako burdinolak, errota eta ontzigintza.
- Zenbait industria garaikide:
 - Labe garaiak; altzairugintza, burdin galdategiak.
 - Ontziolak: ontzigintza.
 - Makina tresnen eraikuntza.
 - Garraiobideak: trenak eta autobusak
- Ekonomia gorabeherak XX. mendeko 60ko hamarkada arte: lotura estatuko eta nazioarteko egoerekiko lotura.
- Kooperatibismoa: Jatorria eta bilakaera.
 - 70eko hamarkadako industria krisia eta berregituraketa/birmoldaketa 80ko hamarkadan.
 - Multinazionalak Euskal Herrian eta Euskal Herriko lantegiak munduan zehar.

1.5 Hirugarren sektoreko jarduerak: zerbitzuak

- Azpiegituren kokapena eta honen ondorioak
 - Portuak, merkataritza-portuen garrantzia ekonomian. Bilbo eta Pasaia.
 - Merkataritza-aireportuak. Foronda.
- Administrazioa. Aurrekontuak. ...
- Finantza guneak.
 - Bankuak eta kutxak.
 - Euskal Herriko finantza egituren sorrera eta bilakaera
- Merkataritza.
 - Merkataritza handi eta txikien arteko erlazioa. Ondorioak ohiko herriko merkatal guneetan.
 - Nazioarteko merkataritzaren eragina euskal ekonomian.
- Turismoa.
 - Ezaugarriak eta ondorioak bereziki hirigune, landa-eremu eta Ipar Euskal-herrian.
 - Aisia eta espazio babestuak
 - Ondorio ekologikoak

2.-GAUR EGUNGO EGOERA EKONOMIKOA.

- Adierazle sozio-ekonomiko nagusiak.
- Ekonomia-jardueren zonalde eta gune nagusien kokapena.
- Sektoreen egoera:
 - Nekazaritza berria;
 - Arrantza: Gehiegizko ustiapenaren ondorioak, arrain haztegiak.
 - Industria: Gune berriak, Multinazionalak. Deslokalizazioa.
 - Zerbitzuen garapena azken hamarkadetan. Merkataritzaren garrantzia.
- Europar Batasunean integratzeak lehen eta bigarren sektorean eragindako ondorioak.
- Euskal Herriko ekonomia-jardueren joera orokorrak globalizazioaren barruan.

3.- EUSKAL EKONOMIAREN ETORKIZUNA: EKONOMIA DINAMIKOA, ALDATZEKO GAITASUNA DUENA:

- Etorkizuneko arazoak, erronkak eta aukerak

Prozedurak eta jarrerak

- Hainbat iturritan (estatistika, kartografia, bibliografia, IKTak...) ekonomiari buruzko informazioa bilatzeko jarraibideak.
- Izaera ekonomikoa duen informazioa, esplizitua zein inplizitua bilatzeko, aztertze eta egiaztatze jarraibideak.
- Informazio hori hainbat helburukin erregistratzeko jarraibideak.
- Informazioa ekonomikoa grafikoetan (barra diagrama, taula...) eta mapa tematikoetan irudikatze jarraibideak.
- Ekonomi jardueren ondorioz sorturiko paisaia geografikoen zuzeneko behatzeko eta aztertze jarraibideak.
- Hainbat motatako agiri ofizialak irakurtze, interpretatzeko eta betetze jarraibideak.
- Lortutako informazioa behar bezala eta argudiatuta ahoz zein idatziz komunikatzeko jarraibideak.

8.Zer ezaugarri nagusik definitzen du egungo gizartea eta nora goaz Euskal Herrian?

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p>8.- XXI. mendeko Euskal Herria definitzen duten ezaugarri nagusienak identifikatu, informazio iturri desberdinak erabiliz eta modu kritiko eta eraikitzaile batez aztertu eta baloratu, etorkizuneko proiektu komunetan modu aktiboan parte hartzeko eta trebetasun sozialak eta elkarbizitarrako jarrerak lortzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - XXI.mendeko Euskal Herria definitzen duten ezaugarri nagusiak identifikatzen ditu eta hauen garapena baloratzen du informazioa bilatzeko eta aukeratzeko jarraibideak egoki erabiliz. - Informazio iturri historikoetara, nahiz gaur egungo iturri ezberdinetara jotzen du, idatzizko zein ahozko materiala, komunikabideak (prentsa, telebista, zinea...) zein IKTk, gertaera jakin baten aurrean dauden interpretazio ezberdinak jaso, konparatu eta interpretatuaz, eta edozein informazio iturrik izan ditzakeen ikuspegiak diskriminatze gai da. - Gizarteko ekintza eta gertaeren azalpeni buruzko jakinmina garatu du komunikabide eta sareko informazio eta mezuen aurrean jarrera kritikoa adieraziaz.
Kontzeptuak	
<p>1.- ERREALITATE GLOBALAREN ADIERAZPENA EUSKAL HERRITIK IKUSITA:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Produktu trukea munduko edozein herrialderekin (ondasunak eta zerbitzuak). - Globalizazioa eta bere ondorioak. - Kultur-aniztasuna eta globalizazioa. Aniztasuna murrizteko arriskuak. - Hizkuntza minorizatuen erronka. - Nazioarteko migrazioen zabaltasuna eta orokortasuna. - Komunikazio industrien nagusitasuna. - Komunikabideak eta haien eragina. Komunikabideen ezaugarriak egungo gizartean. <p>2.- KOMUNIKAZIO INDUSTRIAK EUSKAL HERRIAN:</p> <p>2.1. Paper euskarran egindako komunikabideak. Prentsa eta liburugintza</p> <ul style="list-style-type: none"> - Argitaletxeen independentzia eta menekotasuna. Euskal argitaletxeak eta euskal prentsa. - Euskal literaturaren garrantzia, euskal kulturaren mantenuko. - Prentsa munduan informazio iturriak. Informazioaren manipulazioa eta erabilera. Objektibotasunaren auzia - Hauen eragina gizartean. <p>2.2 Ikus-entzunezkoak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal diskogintza eta mundu mailakoaren arteko lehia. - Diskogintza eta beste hedabideak: irrati, telebista eta internet. - Euskal zinemagintzaren ibilbidea gure kulturaren lekuko gisa. - Euskal irratigintza; irrati libreen garrantzia. - Telebistaren funtzioa, Bertako telebista, mundu globalizatuan. Euskal Telebistaren funtzioa. - Ikus-entzunezkoen eragina euskararen normalizazio eta hedapenean. - Informazioaren manipulazioa, erabilera. Objektibotasuna. <p>2.3 Internet</p> <ul style="list-style-type: none"> - Internet Euskal Herrian. Euskara eta Internet. Informazio teknologia berrien garapena gure kultura eta izaera mantentze, ugaltzeko . <p>3.- ETORKIZUNeko ERRONKAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Mundu arina eta aldakorra. - Globalizazioa eta elkarrekiko mendekotasuna: merkatuen mundializazioa. - Kontzentratze eta homogeneizatzeko joera. - Informazioaren kontrola enpresa handien eskuetan. 	

- Kultur aniztasuna eta kulturen arteko tentsioak.
- Lehiakortasunaren erronka: ikerketaren eta berrikuntzaren garrantzia.
- Prestakuntzaren erronka: kompetentzietan prestatzea.
- Teknologia berrien erronka.

Prozedurak eta jarrerak

- Informazio bibliografikoa bilatzeko jarraibideak.
- Ohiko hemeroteketan informazioa bilatzeko jarraibideak.
- Egunkari digitalen hemeroteketan informazioa bilatzeko jarraibideak.
- Hainbat estatistika iturritatik informazioa jasotzeko eta erregistratzeko jarraibideak.
- Merkatu dinamikak ulertu: salduenen zerrendak aztertu; fondoak eta berrikuntzen arteko dinamikak aztertu.